

2024-25 MEMORIA 2025eko ekaina

MEMORIA EGITEKO PROZEDURA ETA LAN-METODOLOGIA:

Memoria hau egiteko, irakasleek banaka zein taldeka (zikloka, arloka, mailaka...) lan egin dute. Horrekin batera, aurrera eraman diren ekintzak eta jarduerak txantilo, inkesta, akten... arabera hausnartu eta ebaluatu dituzte.

Familiei ere, haien balorapena eskatu diegu zenbait atalen ebaluazioa egin ahal izateko.

Egindakoaren emaitzak talde handian aztertu dira; zuzendaritza taldeak datu horiek guztiak, bildu ditu eta 2024-2025 ikasturteari dagokion memoria dokumento hau sortu eta aurkeztu du.

Para la elaboración de esta memoria el profesorado ha trabajado tanto individualmente como en grupo (por ciclos, áreas, niveles...). Se han evaluado las acciones y actividades llevadas a cabo, utilizando plantillas, encuestas, actas...

Los resultados han sido recogidos por el equipo directivo, que ha elaborado y presentado la memoria correspondiente al curso 2024-2025.


Las familias también han tenido la oportunidad de valorar diversos aspectos y funcionamiento del centro.

1.- IKASTOLAKO FUNTZIONAMENDUA / FUNCIONAMIENTO DEL CENTRO

Irakasleei pasatutako galdetegiaren emaitzak hauek dira/ Los resultados del cuestionario respondido por el profesorado es el siguiente: (27 irakasle gara eta 20 erantzun jaso ditugu)

1.- EGUTEGIA eta DATA AIPAGARRIAK: Egutegia adosteko prozesuaren balorazioa (irakasleok gutxiengoak proposatu eta OOG-n datak zehaztu)

20 respuestas




Hobetzeko proposamenik

- irakasleok aukera bat adostu eta OGGan hori defendatu beharko genuke, eta familiei argudo pedagogikoak azaldu
- Ekainean jarraia, inauteriak luzatu
- Klaustro bat egitea/ etapa bilera.
- Klaustro batean adostea, eta proposamen argi batekin joan OOGra
- Intentsiba ekainean eta irailan
- Klaustroan egutegi bat adostea eta hori OOGra eramatea.
- Irakasleen artean lehenago bat adostea OMR-ra eramateko.
- Egutegia zehazteko aurretik klaustroa egin. Irakasleon iritsia eramateko.
- Iraileko intenziba ulertzen dudan arren, ekaineko intenzibaren aldekoa ere banaiz. Bere alde positiboak dituela uste dut. Haurrak ekainean nekatuta gaude eta gu ere. Gauzak horrela gure lana ondo burutzea ez da hain erraza izaten eta ordutegi horrek hau apur bat arintzen lagundu ahalko lukeela uste dut. Hori posible izateko aukeretako bat 9:00tan eskolara sartzea izan ahalko litzatekeela uste dut, horrela egunero ordu erdi eginda intenzibarako orduak lortu ahalko zirelako. Ordutegia hobetzeari dagokionez ere, 9:00-16:00 ordutegia ikasturte osorako egokiago ikusten dut.
- Aurretik klaustroan komentatzeko aukera egotea.
- Klaustro batean aurkeztu eta bozkatu.

2.- ORDUTEGI ARRUNTA (goiz-arratsalde) eta ORDUTEGI JARRAIA (goizez bakarrik)

Ordutegien egokitasuna eta egun berezietako orduteg...erietan eta ekaineko jaialdietan ordutegi jarraia)

20 respuestas



Hobetzeko proposamenik


- Ekainean jarraia
- Jantokikoak eta etxeakoak ordu berean irtetzea
- Ordu erdi lehenago sartzea, horrela ekainean ordutegi jarraia egin ahal izateko edo ordu erdi lehenago amaitzeko.
- Goizetan lehenago sartu eta astean behin ordutegi jarraia. Badakit zaila dela, baina proposatzearen...
- Ordutegi jarraia iraila eta ekainean.
- 9etan sartu eta ekainean behintzat jardunaldi jarraia izan
- jarraia iraila eta ekainean
- Ekainean jardunaldi jarraia (09:00-15:00) izatea oso komenigarria iruditzen zait, irailean ondo egongo litzateke ere egokitzen ondo egiteko (edo lehenengo astea behintzat...); baina ekaina umeentzat gogorrena dela uste dut. Ordutegiaren gaia klaustro batean komentatu beharko litzateke.

3.- SARRERAK eta IRTEERAK: goizez, eguerdian, arratsaldez eta patio orduan.

Egokitasuna

baloratu

20 respuestas




Hobetzeko proposamenik

- Ikasleak kastolara sartzen edo ateratzen direnean irakasleen kontrol gehiago egotea, irakasleak gainean egon behar gara ikasleen arteko liskarrak eta arazoak ekiditzeko asmoz
- Puntualtasuna
- kontrol handia egon behar da irakaslegoaren partetik, eta azken aldian nabaritu da hobekuntza.
- Gurasoren batek HHn egunen batean umeak jasoko ez baditu eta beste pertsona bat badator bila aldeztu aurretik abisatzeko gogoratzea.
- HHkoen sarrera eguerdikoa sarrera eskaileretan itxarotea ez dut oso egokia ikusten. Beste modu batean antolatu beharko zen, igotzen eta jaitsi nahi dutenen artean ez molestatzeko. Agian 5 urteko gelan itxaron ahal dute

4.-GAIXOTASUNAK / BOTIKAK: Sarean eta zerrendetan dagoen informazioa. Botikak hartzeko protokoloa (zuzendaritzan gorde eta han hartu).

20 respuestas




Hobetzeko proposamenik

- HH5eko klasearentzat botikina urrun geratzen da, momentuan gertatzen diren gauzak konpontzea zaila da. Beraz, nik gauza gutxi batzuk hartu nituen eta gela utzi.

5.-GERTAERA BEREZIAK: krisialduak, jarrera desegokiak, istripuak... Protokoloa baloratu (101barruko telefonotik deitu/zuzendaritzan abisatu)

20 respuestas




Hobetzeko proposamenik

- Ez dakit hau non idatzi. HH5eko ikasleak (eta HH4koak egon direnean), batzuetan bakarrik geratzen dira gelan komuna urrun geratzen delako eta laguntza behar dutelako garbitzeko. Horrelakoetan, hurbil zegoenean norbaiti laguntza eskatu diot, baina noizbait ez da inor egon.

6.-PATIO ZAINZAK: Zuzendaritzak irakasleen artean egiten duen banaketa (ordu libre gehien dutenen artean banatzea). Patio zaintzaren egokit...jolasteko materiala, espazioen banaketa, arauak...).

20 respuestas




Hobetzeko proposamenik

- Irakasle asko patio zaintza egiten
- Patio orduetan zaintzan dauden irakasleek puntualtasuna gehiago errespetatu beharko lukete
- Kutxa anitzeko materiala berriztu daiteke. Egun berezi gehiago planteatu ahal dira, gurpil eguna bezala.

- Bakoitzak egun bat libratzearena oso posittiboa izan da, baina espazioen banaketari eta materialari buelta bat eman behar zaio.
- Gaur egun egokiagoa iruditzen zaidan arren, kurtsu hasieran ez. Egun guztietan patio zaintza osoak egitea gehiegizko iruditzen zaitzaidan.
- HHn material gehiago egotea ondo legoke, euria egiten duen egunetan.
- zaintza gutxiago eta irakasle gutxiago zaintza egiten patioan
- Ikasturte hasieran begiratu ondo irakaslegoaren ordu libreak desorekak ez egoteko.
- HHn urte honetan aurrera eraman den sistema positiboki baloratzen dut (patio bat libratzearena), eta hurrengo urteetarako jarraitzea proposatzen dut. Bestetik, udan (maiatza-ekaina...) HHko patioak material gehiagorekin hornitzea interesgarria izango litzateke, batez ere 4-5 urtekoak arratsaldeetan ateratzeko aukera daukatelako.
- LH-n beheko patioan bi pertsonekin nahiko izango zen zaintza egiteko, frontoia eta zabuak gune bat eta bestea sarrera eta atzeko partea.


7.-OSASUN eta HIGIENE ohiturak: Protokoloa baloratu

20 respuestas



8.-ORDEZKAPENAK: Zuzendaritzak irakasleen artean egiten duen banaketa (ordu libre gehien dutenen artean banatzea) Irizpidea baloratu. Orde...akasleak utzi behar duen informazioa, materiala...).

20 respuestas




Hobetzeko proposamenik

- Arlo guztietarako ez dago materiala prest, sarean sortu genuen karpeta bat baina batzuk falta dira
- Laguntza saioak irakasleen ordezkapenak kubritzeko baloratu daiteke Ordu libreak irizpide objektiboa bada ere, ordu lektiboen lan karga zein fisikoa edo mentala kontuan hartzeko aldagaia izan daiteke Izan ere, ez da berdina patio zaintza bat egitea edo laguntza saioak edukitzea irakasgai oso baten anotlamenduarekin konparatuta (saioak prestatu, ebaluatu, familliekin hitz egin, ikasleen arteko liskarrak konpondu ...) Lanpostu bakoitzak bere berezitasuna badu ere, lan kargaren eta zama fisiko zein mentalaren aldagaia kontuan hartzea ondo legoke
- Ingurumen eta jasangarritasun ikuspuntu batetik hobekuntza bat: paper asko eta asko gastatzen da, batzutan lerro bat idazteko, edo 4 hitz. Egonda nagoen beste ikastetxe batean, paper txikitxoagoak zituzten, eta bertan betetzen zen informazioa pertsonala zen (adibidez, nor, ordezkatu, nor, eta noiz). Arbel batean jartzen ziren txintxeta batekin eta goizetan irakaslegoa pasatzen zen begiratzen zeozer bazegoen. Gero papertxo guzti horiek kutxa batean biltzen ziren, hiruhileko bakoitzean zehar, eta ebaluaketa amaierako gastoklaustroan, zozketa bat eginez, bizpahiru saridun ateratzen ziren. Gauza polita da eta inzentibo txiki bat ordezkapenak egiteko orduan.
- Egunean zehar ordezkapen bat gehiago gehitu behar bada beste metodo bat erabili, batzutan sarrerako orria lehenengo orduan begiratu besterik ez baita egiten.
- Aldaketaren bat egin eta gero hobeto, hala ere, kontutan izan behar da bi urteko gelan oso gutxi libratzen dela. Baina egia da ordezkapenak egiteko kontutan hartzen dela ere.
- Drive edo emailz jakinarazi.
- Kontuan ere izan behar zen ea zein den lan karga (tutorea, departamentuko arduraduna...)

9.-SAREaren antolamendua: Irakasleak: Aldaketak egiteko, BBDOK eta Nobackup karpetak.

/ Ikasleak karpeta. Antolakuntza, dagoen informazioa, praktikotasuna...baloratu

20 respuestas




Hobetzeko proposamenik

- Drive erabiltzea
- Ikasturtero garbiketa egitea
- Drive gehiago erabili ahalko genuke eta sarean dagoena Drivera pasatu eta antolatu.
- Gurasoekin gauzak konpartitzeko uste dut errezagoa izango litzatekeela bakoitzak egin ahal izango balu. Hau da, tutoreak berak nahi duenean igotzeko aukera izango balu. Egia da behin esanda arin igotzen direla baina pertsonalki beste bati denbora guztian esaten ibiltzeak niri behintzat lotsa edo "apuro" puntu bat ematen dit.
- Ondo dago, baina niretzat erabilgarriagoa da Drive-a.

10.-INFORMATIKA MANTENUA: Ekipamendu informatikoa (ordenagailuak, pantailak, inpresorak).

Kopurua, erabilpena, egoera, kokapenairakasle bakoitzak CAU-ra deitzea) baloratu.

20 respuestas




Hobetzeko proposamenik

- Kurtso hasieran Igonek ardura zuenean errazagoa zen
- Ondo legoke, arduradun bat egotea CAUra deitzeko, ahal dan heinean. Paper eta fotokopia gastu handia.
- Ordenagailu asko ez dabilta behar moduan eta denbora asko galtzea eragiten dute (bai irakasle eta bai ikasleenak)
- CAUra deitzeko arduradun bat egotea ondo dago, pertsona horrek noizbehinka gela guztietatik pasatu ahalko zen galdetzera ea zeozer behar den, konpondu behar den...
- Ekipamendu batzuk apurtuta eta zahartuta. Oso motel orokorrean.

11.-IRAKASLEEN ARTEKO INFORMAZIOA: Irakasle gelako tabloia, Calendar eta Korreo korporatiboa. Eraginkortasuna baloratu

20 respuestas



Hobetzeko proposamenik

- Google calendar gehiago erabiltzea
- irakasle gelako tabloia eta korreoa informazioa ondo ematen den arren, batzutan bai bota izan dut faltan orokorrean irakaslearen arteko erlazio eta hartu eman pertsonala eskolaren inguruan.

2.- IKASTURTEKO URTEKO PLANA

2.1 Ikasturteko planaren garapenean eragina izan duten aspektu edota faktoreak / Factores que han influido en el desarrollo del plan de curso

Klaustroaren inplikazioa altua izan da formakuntzetan eta lan saioetan honek urteko planaren helburuak aurrera eramaten lagundu du. BeAk egin duen gidaritza lana ere oso altua izan da eta irakasleekin lortu duen lan giroa oso egokia izan da.

Pedagogika bilerak eraginkorrak izan dira.

La implicación del claustro en las formaciones ha sido alta y en las sesiones de trabajo esto ha ayudado a llevar a cabo los objetivos del plan anual.

La labor de liderazgo realizada por BeA también ha sido muy alta y el ambiente de trabajo que ha conseguido con los profesores ha sido muy propicio.

Las reuniones de pedagogía han sido efectivas.

2.2 Datorren ikasturtean jarraipena izango duten urteko planaren aspektuak / Aspectos que seguiremos trabajando el próximo curso:

Euskararen erabilpena bultzatzen jarraitu behar dugu eta Irakurketa Plana berria martxan ipini beharko dugu.

Tenemos que seguir impulsando el uso del euskera y tendremos que poner en marcha un nuevo Plan Lector.

2.3 IUPko Helburuen lorpen maila eta garapena

1.- Euskararen erabilpena eta euskal zaletasuna bultzatzea / Impulsar el uso y afición hacia el euskera.

| JARDUERAK | ARDURADUNAK | DENBORALIZAZIOA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK ETA DATAK |
|--|---|---------------------|---|
| <ol style="list-style-type: none"> 1. Euskara bultzatzeko Euskara Batzordea sortu. 2. Zikloka euskara kanpainak adostu hiruhilabetean behin, Euskaraz Bizi. 3. Boletinetan Euskararekiko jarrera modu esplizituan adierazi. 4. Euskararekin erlazionatutako Ekintza Berezietan parte hartu. 5. Eskolako araua euskaraz hitz egitea dela gogorazi, eta geletan eta patioan euskaraz hitz egitea araua dela ikasleekin landu (ondorioak). 6. Eskolako komunitatea, batez ere familiak, euskararekiko begirunean inplikatu. | <p>Arduraduna: ZT talde Euskara Batzordea</p> <p>Beste agenteak: Klaustroa Familiak</p> | Kurtso osoan zehar. | <p>Eskolan euskara gehiago erabiltzen da.</p> <p>Euskara Batzordea sortu da. (Urria)</p> <p>Euskara Batzordeak proposamenak egin ditu. (Urria-Abendua)</p> <p>Kanpainengatik euskararen erabilpena hobetu da.</p> <p>Boletinetan euskararekiko oharra adierazi da.</p> <p>Familiak helburuarekin bat egin dute eta euskara sustatzeko ahaleginean lagundu dute.</p> |

HELBURUA: LORPEN MAILA

Planteatutako jarduerak egin badira ere, lorpen maila (ikasleen erabilera) oso baxua izan da. ZT: Euskara Batzordea sortu da eta oso ekintza politak planteatu dituzte hezkuntza komunitate osoa inplikatu nahian. Euskara presentago egon da eskolako ekintza berezietan. Kanpainak egon direnean ikasleak inplikatuago egon dira.

Eskolan euskara gehiago erabiltzen da. NAHIKO

Euskara Batzordea sortu da. (Urria) BIKAIN

Euskara Batzordeak proposamenak egin ditu. (Urria-Abendua) BIKAIN

Kanpainengatik euskararen erabilpena hobetu da. OSO ONDO

Boletinetan euskararekiko oharra adierazi da. OSO ONDO

Familiak helburuarekin bat egin dute eta euskara sustatzeko ahaleginean lagundu dute. ONDO

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Jantokiko begiraleak euskara hutsean aritzea. Baita goiztiar zerbitzuan ere. Askotan gazteleraz hitz egiten dute.

Kontzientzia eta konpromisoa eskola komunitate osoan euskara bultzatzeko/erabiltzeko.

Euskara kanpainen arteko lotura egotea: kanpaina bateratu bat egitea, adibidez.

ZT: familiak ere kanpainaren baten parte hartzea. (Berbodromoa...) Euskara batzordean ikasleak parte hartzea.

2.- Irakurketa plana berriztea / renovar el plan de lectura.

| JARDUERAK | ARDURADUNAK | DENBORALIZAZIOA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK ETA DATAK |
|---|--|--|---|
| <p>1. Irakurketa Estrategiaren inguruan formakuntza egin.</p> <p>2. Eskolan irakurketaren inguruan egiten diren ekintzak azertu.</p> <p>3. Hizkuntza mintegikidekin eta irakasle guztiekin irakurketarekiko hausnarketa partekatua egin.</p> <p>4. Hobetzeko proposamenak egin, ekintza zehatzekin.</p> <p>5. Eskolako Irakurketa Plana berriztu.</p> | <p>Arduraduna: Ikasketa Burua BeA irakaslea</p> <p>Beste agenteak: Klaustroa</p> | <p>2. hiruhilabete: formakuntza eta hausnarketa.</p> <p>2 eta 3. Hiruhilabete: Irakurketa Plana idaztea/berriztea.</p> | <p>Klaustro osoaren inplikazioa egon da.</p> <p>Formakuntza denok egin dugu.</p> <p>Irakurketa Planarako ekintzak sortu ditugu ziklo guztietan</p> <p>Irakurketa Plana berriztu dugu.</p> |

HELBURUA: LORPEN MAILA

- Irakurketa estrategia berria egiteko lan-saioak egin dira eta bertan proposatutako ekintza batzuk martxan jarri dira: ikasgelan egunero irakurtzea, etxean irakurtzea modu sistematizatuan, azoka....
- Galtzagarrik emandako formakuntza oso interesgarria izan da.
- ZT: Irakurketa Estrategia berria sortu egin da hizkuntzako mintegikideen inplikazioarekin eta BeAk egin duen lan onarekin.
- ZT: Klaustroaren inplikazioa formakuntzetan altua izan da. Aurten ekintzak martxan ipintzea gustora hartu egin da, irakasleok ere irakurketaren garrantzian inplikaturik egonik.

Klaustro osoaren inplikazioa egon da. ONDO

Formakuntza denok egin dugu. BIKAIN

Irakurketa Planarako ekintzak sortu ditugu ziklo guztietan. OSO ONDO

Irakurketa Plana berriztu dugu. OSO ONDO

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

- Haur hezkuntzako liburutegiak gehiago hornitzea.
- Galtzagarrik emandako formakuntza luzeagoa izatea edo jasotzea.
- HH5eko korridorean liburutegi bat jartzea eta HH4 gelako irteeran beste bat.
- LHko liburutegiak antolatzen amaitu behar dugu.
- Irakurketa estrategia klaustroan konpartitzea kurtsu hasieran jarraipena izan dezan.
- Liburutegien pertsona arduraduna izendatzea
- ITT frogaren inguruan hausnartu. Irakasleak formatu beharko liriteke eta ariketa mota horiek gelan landu. Espazio fisiko bat beharrezkoa da.

3.- HH mintegia indartu eta HH eta LH zubia finkatzea / Reforzar el seminario de Ed infantil y afianzar la coordinación entre Las etapas de Ed infantil y primaria.

| JARDUERAK | ARDURADUNAK | DENBORALIZAZIOA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK ETA DATAK |
|---|--|------------------------|--|
| <ol style="list-style-type: none"> 1. HHko etapa eta mintegiak indartu. 2. HHko irakasleren bat Amara Berri Sarean parte hartzea. 3. HHko materialari buruz azterketa eta hausnarketa egitea. 4. HHko materiala berriztea. 5. HH eta LH lotura kurtsoa amaieran sustatzea (bisitak geletara, ikaskideak...). | <p>Arduradunak: Ikasketa Buruak HH koordinatzailea Talde pedagogikoa</p> <p>Beste agenteak: HH ko irakasleak eta 1zikloko irakasleak</p> | Ikasturte osoan zehar. | <p>HH etapa eta mintegia indartu da.</p> <p>Sarean parte hartu dugu.</p> <p>HHko materialen bat berriztu da.</p> <p>HH eta LH zubia kurtso amaieran egin da.</p> |

HELBURUA: LORPEN MAILA

- HHko bilerak eta mintegiak egin ditugu, besteak beste programazioak, zientziak eta pentsamendu konputazionala lantzeko.
- ZT: HHko lan saio bateratuak oso emaitza onak eman dituzte, esperientzia berriak eskolara ekarri. Amara Berri sarean parte hartzea positiboa izan da.

HH etapa eta mintegia indartu da. ONDO

Sarean parte hartu dugu. ONDO

HHko materialen bat berriztu da. ONDO

HH eta LH zubia kurtso amaieran egin da. NAHIKO

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

- HH eta LH lotura kurtsoa amaieran sustatzea (bisitak geletara, ikaskideak...denbora gehiagorekin prestatzea aurreikusitako saioak egiten direla ziurtatzeko.
- HHn ingeles gela/espazio propioa izatea Amara Berri ondo gauzatu ahal izateko.
- Amara Berriri buruzko formakuntza gehiago jasotzea.

4.- Programazioak mailaka egitea eta Ikas egoerak garatzea, ebaluazio kompetentziala kontuan hartuz. / Desarrollar las programaciones por curso y las situaciones de aprendizaje, teniendo en cuenta la evaluación competencial.

| JARDUERAK | ARDURADUNAK | DENBORALIZAZIOA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK ETA DATAK |
|---|---|---|---|
| <p>1.- Mintegietan ebaluazio kompetentzialaren inguruan lan egin.</p> <p>2.- Ebaluazio boletinetan kompetentzialki ebaluatu.</p> <p>3.- Ebaluazio boletinak aldatu.</p> <p>4.- Programazioak mailakatu.</p> <p>5.- Ikas egoerak garatu.</p> | <p>Arduraduna: Ikasketa Burua BeA irakaslea</p> <p>Beste agenteak: Irakasleoa Mintegiak</p> | <p>Irailetik Abendura ebaluazio kompetentzialaren inguruan lan egingo da</p> <p>Urtarriletik Martxora programazioak mailaka egin.</p> <p>Apiriletik Ekainera ikas egoerak egin.</p> | <p>Mintegian taldeka lan egin dugu.</p> <p>Boletinak moldatu ditugu.</p> <p>Programazioak mailaka egin ditugu.</p> <p>Ikas egoerak garatu ditugu.</p> |

HELBURUA: LORPEN MAILA

- HHko programazioak egin ditugu eta boletinak berriztuta daude.
- ZT: Ebaluazio kompetentziala martxan ipintzea lortu dugu, boletinak aldatuta. Programazioak maila ezberdinetara egokitu dira.

Mintegian taldeka lan egin dugu. OSO ONDO

Boletinak moldatu ditugu. BIKAIN

Programazioak mailaka egin ditugu. OSO ONDO

Ikas egoerak garatu ditugu. NAHIKO

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

- Eginda dauden Ikas-egoerak gure errealitatera egokitu.
- Programazioak urtero urrian begiratzea ikasgelara egokitzeko eta aniztasunari arreta zelan emango diogun zehazteko.
- Ikas Egoerak ez ditugu amaitu, sareko guztiak birpasatu behar ditugu hurrengo ikasturtean.

3.- Ikastetxearen funtzionamendu atalak / Funcionamento de los grupos de trabajo del centro.

| ZIKLO BILERAK | | | |
|---------------------------|--|---|---|
| | ALDERDI POSITIBOA | ZAILTASUNAK | HOBETZEKO PROPOSAMENA |
| H.H. ETAPA | Astero bildu gara, gustura lan egin dugu eta planteatu den lana aurrera atera dugu. | | LHkoekin ekintza eta harreman gehiago izatea. Erabakiak etapa bileretan hartzea eta etapako kide guztien artean partekatzea. ZT: etapetan hitz egiten dena zuzendaritzara helarazteko bideak adostea. |
| L.H. ETAPA | Koordinatzaileen arteko lankidetzak ondo, ardurak banatu ditugu eta elkarri lagundu diogu | Bileretan ez gaude irakasle guztiok eta gero informazioa pasatzeko beste bide batzuk bilatu behar ditugu. | ZT: etapetan hitz egiten dena zuzendaritzara helarazteko bideak adostea. |
| MINTEGIAK | | | |
| | ALDERDI POSITIBOA | ZAILTASUNAK | HOBETZEKO PROPOSAMENA |
| ZIENTZIA MINTEGIA | Irakasleen arteko lankidetzak eta elkarri emandako laguntza. Proposatutako lanak aurrera atera ditugu. | 1 zikloan zientzietako irakaslearen ordutegia dela eta, mintegi egunetan ez da egon eta beste irakasle batek hartu behar izan du ardura hori. | Guztiok gauden eskusiban egitea mintegia. |
| HIZKUNTZA MINTEGIA | Irakasleen arteko lankidetzak eta elkarri emandako laguntza | LHko Atzerriko Hizkuntzako irakasle bakarra dagoenez, ikas-egoerak lankidetzarik gabe osatu behar izan ditu eta, beraz, ezin izaten du parte hartu beste arloetan lana bikoizten zaiolako | Atzerriko Hizkuntzako kasuan, arloko lana dagoenean, mintegian ez parte hartzea bere lana aurrera eramateko. |
| ORGANO KOLEGIATUAK | | | |
| | ALDERDI POSITIBOA | ZAILTASUNAK | HOBETZEKO PROPOSAMENA |
| OOG | Puntueltasuna eta akordioetarako iristeko ahalmena. | Partaideen esku-hartzea batzuetan ez errespetatzea. Batzuetan gauza berdinekin ibiltzen gara buelta eta buelta, denbora gehiegi emanez. | Moderatzailearen irudia txertatu. OOGra bidaltzen den deialdia aurretik klaustroan lantzea edo informatzea. (egutegia klaustroan adostea) |

| | | | |
|----------------------------|--|--|--|
| | <p>Giro polita dago bakoitzak nahi duena komentatzeko eta errespetuz entzuten dugu.</p> <p>Eskolako funtzinamendurako diren alderdiak komunitate osoaren parte hartzearen bitartez erabakitzea.</p> <p>Errespetua, giroa, deialdien epeak eta aldeztuak aurretik bidalitako dokumentazioa.</p> <p>Sintonía ona guraso eta eskolaren artean</p> <p>Ondo kudeatuta dago parte hartzaile guztien artean.</p> <p>Denok hitz egiteko aukera izatea, askatasunez. Ez dira oso luzeegiak izan.</p> <p>Giro atsegina dago edozein gai proposatzeko edo lantzeko.</p> | <p>Irakaslearen erabakiak aldeztu aurretik hitz eginda eramatea.</p> <p>Udalaren kudeaketaren inguruan adierazitako kezak eta kezak ez doaz inora, askotan erantzun edo informaziorik gabe geratzen gara, ez da egoera zuzentzen.</p> <p>Udaletxeko ordezkariaren papera. Askotan ez dugu erantzunik jasotzen edo beste pertsona batzuei deribatzen die ardura eta egiten ditugun eskakizunak gutxienez nonbaiten jasotzea edo eskertuko litzateke.</p> <p>Batzutan denboraren kudeaketa hobe daiteke.</p> <p>Azken bileran akta osoa ordu erdian egin zen, eta beste ordu erdi bat pasatu genuen berdinari buruz hitz egiten, eta 2 pertsona bakarrik hitz egiten, berdina esateko..</p> <p>Udaletxearen partetik, ez onartu gaien erantzunik ez ematea. Bitartekariak ere, erantzun koherenteak eman behar ditu.</p> <p>Gai batzuekin gehiegi luzatzen gara, askotan ideia berririk eman gabe. Ondo legoke une horiek dinamizatzea edo bizkortzea.</p> | <p>OOGan lantzeko diren gaiak zeintzuk diren zehaztu, agian edozein ezin da proposatu.</p> <p>OMR kide diren irakasleen bilera bat aldeztu aurretik egitea</p> <p>Moderatzaile rola egotea agian aurrekoa ez gertatzeko.</p> |
| KLAUSTROA | <p>Giro ona egon da eta hori sustatzen jarraitu behar da.</p> | | <p>Klaustroan egutegiak bozkatzeko eta irakaslearen proposamenak ere kontuan hartzea eta familiei proposamen bakoitzaren aldeko eta kontrako argudioak helaraztea.</p> |
| ZUZENDARITZA TALDEA | <p>Egindako eskaerak/proposamenak/beharrak bideratzeko prestutasuna.</p> | | <p>Koordinaziorako espazioak maiztasun zehatz batekin biltzea.</p> |
| EIGE | <p>Prest daude edozein ekintzetan parte hartzeko.</p> | | <p>Parte-hartzen duten ekintzetan posible den neurrian euskaraz hitz egiten jarraitzea.</p> |

LAN TALDEAK

| | ALDERDI POSITIBOA | ZAILTASUNAK | HOBETZEKO PROPOSAMENA |
|--------------------|--|---|---|
| BEHATOKIA | <p>Ikasleen parte-hartzea.</p> <p>ikastolako partaide guztien ordeazkariak parte hartzen dutela: ikasleak, irakasleak eta gurasoak.</p> <p>Irakasle gehiago hartu dute parte eta ikasleentzako galdetegia laburtu egin dugu.</p> <p>Galderak oso zehatzak eta erlazio aldetik arazo errealak erakusten dituztenak izan dira.</p> <p>Ondo. Bileraren maiztasuna egokia.</p> <p>Galdetegia ere egokia.</p> <p>Ondo dago, ikasleek haien proposamenak ekartzen dituzte eta bertan komentatzen dira. Arazoak eta konponbideak proposatzeko leku interesgarri bat da.</p> <p>Hiruhilabetean behin elkartzea ondo dago.</p> <p>Ikasle gehiago parte hartzen dute eta ikasgeletan hitz egiten dute.</p> | <p>Bilerak egin diren egunetan ez dira irakasle guztiak egon.</p> <p>Ikasleek bete beharreko galdetegietan erantzun batzuk desegokiak ziren.</p> <p>Galdera gehiegi izan dira, baina, kantitatea aldatu egin denez, ondo geratu da azkenean.</p> <p>Izenak agertzea. Nahiz eta batzutan izenak idatzita agertzea beharrezkoa izan, bortzizta izan daiteke.</p> <p>Askotan izenak ateratzen dira, eta ez dira beharrezkoak. Klasean gehiago lantzea galdetegia, askotan ahazten zaie zer komentatu behar duten. Askotan proposatutako gauzak ez dira praktikan jartzen</p> <p>Benetazko arazoak ez dira heltzen.</p> | <p>Geletan lantzea bilerara etorri aurretik eta idazkari lanak egitea.</p> <p>Galdetegietan erantzun desegokiak ezabatu.</p> <p>Email bat bidaltzea tutoreei gogorazteko bilera daukagula, galdetegia birpasatzeko ikasleekin</p> |
| AGENDA 2030 | <p>Talde polita osatzen da eta oso gai interesgarriak lantzen dira.</p> <p>Ez dira oso luzeak izan eta hitz egiteko aukera izan dugu denok, askatasunez.</p> <p>Ekintza interesgarriak egin ditugu.</p> <p>Lan talde batzuk egotea gai ezberdinez arduratzen direna, eta ikas-komunitateko partaide guztiak parte hartzea.</p> <p>Hiruhilabetero kanpaina bat egin dugu. 2 hiruhilabetetan energia aurrezteko kanpaina egin dugu eta baratza txikian nahi</p> | <p>Gaiak bakarrik lantzen dira batzordean dauden ikasleekin, ez dira geletara eramaten.</p> <p>Bilerak egin diren egunetan ez dira irakasle guztiak egon.</p> <p>Ikasle batzuk konpromisoa hartu zuten, baina ez dute bete.</p> <p>Familiekiko harremana, komunikazioa. Familiei egiten dena jakinaraztea.</p> <p>Agenda 30ean behintzat, bilera batzuk gehiago izatea, lantzen dena, denon artean sakontasun gehiagorekin lantzeko.</p> | <p>Ikasleek hartzen duten konpromisoak bete behar dira.</p> <p>Hobeto programatzea ekintzan ondo antolatu ahal izateko eta ikasleria osoari zabaltzeko.</p> <p>Haur hezkuntzak parte hartzea ekintzaren batean: ureztatze lanak egin...</p> <p>Ikasle ordezkariak ikasturte hasieran bete betebeharrak ondo ezagutzea eta sinatzea.</p> |

| | | | |
|---|---|---|--|
| | izan duten ikasleek lan egiteko eta ikasteko aukera izan dute. Hiruhilabetero ikasleak aldatzea positibo izan da. | Ikasle ordezkari batzuk, ikasturte hasieran hartu zuten konpromisoa ez dute bete. | |
| BAT TALDEA | Ondo. | Gurasoekin informazioa nola partekatzen den zaindu behar da. | |
| HEZKIDETZA | Lan handia egin da eta zehaztu diren helburuak/ekintzak lortu dira. Tutoreoi beste batzuetan baino denbora gehiagorekin abisatu zaigu. | | Ikasleek batzordean parte hartzea. Familiak inplikatzeko (materiala bidali, bideoak, ..) Gaia oso sakona da HHrako. Geletan gaiak sakontzea dagokion mailaren arabera, tutoretzak aprobetxatuz adibidez. Ekintza hauei garrantzia gehiago ematea (beharrezkoa bada egun osoa eskainiz). |
| EUSKARA BATZORDEA | Lan handia egin da eta zehaztu diren helburuak/ekintzak lortu dira. | Bilerak egin diren egunetan ez dira irakasle guztiak egon. | Ikasleek batzordean parte hartzea. Euskara kanpainenetako proposamenak hemendik ateratzea. |
| PERTSONA BAKARREKO KARGUEN FUNTZIONAMENDUA | | | |
| | ALDERDI POSITIBOA | ZAILTASUNAK | HOBETZEKO PROPOSAMENA |
| ZUZENDARIA | Lanerako eta laguntzeko prestutasuna. Taldea moduan ondo funtzionatu dute. | | |
| IKASKETA BURUA | Lanerako eta laguntzeko prestutasuna. Oso ondo. Beti lanerako prest eta eskatu zaion guztian lagundu du. Jarrera bikaina. | | |
| IDAZKARIA | Lanerako eta laguntzeko prestutasuna. | | |
| BERRIKUNTZA ARD. | LHko kordinatzaileekin duen lankidetzaren eta laguntzeko prestutasuna. Informazioa ondo helarazi da. Lana eskertzen da. | | |

| | | | |
|-----------------------------|--|--|---|
